

TAXIA. Bi lagun taxia hartzen, Hernanin, gauez. MADDI SORIOA / ARGAZKI PRESS

ZERBITZUA URTEZ URTE HOBETZEKO ASMOZ

Sagardotegietara joaten direnek autorik har ez dezaten, autobus eta taxi zerbitzua indartzen ari dira Hernanin eta Astigarragan.

Hernani eta Astigarragara joaten diren bisitarien kopuruak gorantz egiten du txotx garaian. Urtarrilaren 23an hasiko da aurten sagardo garaia, eta egun horretatik aurrera, astebururo ehunka bistari izango dituzte bi herri horiek.

Gaur egun, oso ohikoa da lagun talde batek sagardotegirako asmoa badu, autobusa antolatu eta beste lagun talderen batekin batera sagardotegira joateko plana egitea. Gaur egun ez da txorakeria autoa hartzea, eta ongi pentsatu behar da autoa hartu aurretik.

Zerbitzu publikoen eta garraio pribatuaren erabilerak gora egiten du txotx garaian. Esan bezala, kanpoko herrietatik sagardotegietara joan ohi direnek autobusa alokatzeko ohituraz gain, orain dela hiru urtetik, Hernaniko Udalak autobus bat jartzen du, herritik hainbat sagardotegitarako zerbitzua emateko.

Autobus hori txotx garaian soilik erabil daiteke, eta ostiral eta larunbatetan izaten da normalean erabilgarri. Guztira zazpi sagardotegitara joan ohi da. Afal aurretik, ostiral eta larunbatetan, Hernanitik sagardotegietarako bidea hiru aldiz egiten du, lehena zortziak eta erdietan, bigarrena bederatzietan eta azkena bederatziak eta erdietan. Bueltatzeko, berriz, beste hiru autobus zerbitzu izaten dira, gauerditik hasita. Horiek ere ordu erdiko aldearekin.

Larunbat eguerdietan ere izaten da autobus zerbitzua. Eta beste egunen batean zerbitzua erabili nahi duenak ere erabilgarri izaten du. Hala ere, ezohiko zerbitzu hori erabiltzeko baldintza bat dago: gutxienez 15 laguneko taldea osatu beharra dago.

Iaz 3.000 zerbitzutik gora egin zituzten Buruntzaldeko taxiek sagardo garaian

Astigarragan ere, iazko txotx garaian hartutako neurriak nola funtzionatu zuten ikusi ostean, aurten ere garraio publikoa indartzearen aldeko apustua egingo dute. Areizaga autobus konpainiak beste hainbat garaitan bezala txotx garaian ere autobus lineen zerbitzua indartzeko konpromisoa hartua du.

Zerbitzua indartzeaz gain, Astigarragako Udalarekin bi autobus geltoki gehiago jartzeko konpromisoa ere hartu du. Geltoki horiek Txakala-Araneder hiribidean jarriko ditu; bata Hernanirako noranzkoan, eta bestea Donostiarakoan.

Autobusen erabilera handitzeaz gain, taxiek ere garai horretan lan asko izaten dute, eta hori dela eta, iaz Buruntzaldeko taxiek zenbaki bakarreko sistema jarri zuten martxan. Iaz 3.000 zerbitzutik gora egin zituzten txotx garaian taxiek.

Iazko esperientziaz baliatuz, aurten taxi zerbitzua hobeto antolatzeko apustua egingo dute. Txotx garaian Buruntzaldeko eta inguruko herrietako taxiak ibiliko dira Astigarragan zerbitzua ematen. Guztiek zenbaki bakarreko sisteman sartuak egon beharko dira. Horrela ez bada, Udalak jakinarazi du zenbaki bakarreko sistemarik ez duten taxiek jendea herrira eraman ahalko dutela, baina ez hartu. Neurri horren bidez inguruko taxi gidari guztiek baldintza berberetan lan egitea lortu nahi dute.